

# Enara Nazabal Gomez de Segura

**B** maila • 1 saria

Ez oroitzea arazoa omen da; baina, batzuetan, ahaztea ondo datorkigu. Bai ahaztea, baita oroitzea ere polita izan daiteke, gogorra izan daitekeen moduan. Baina zergatik beti gogoratu? Ez al da ahaztea oroitzea bezain esanguratsua?

Enara Nazabal Gomez de Segura naiz eta 15 urte ditut. Ordizian jaio, bertan bizi eta DBHko 4. maila ikasten ari naiz Oianguren institutuan. Besteak beste, zaldian ibiltzea, saskibaloian jokatzeta eta musika oso gogoko ditut.

Idatzi dudan olerkia asmakizun hutsa izan arren, errealitatearen isla izatea nahi izan dut.



## AHAZTUTA GEUNDEN

Banekien zertara nindoan,  
banekien nora, eta zergatia ere bai.  
Berak, ordea, ez dakit zer edo zer zekien;  
zoritxarrez, ahaztuta zegoen.

Han ikusi nuen eta gure begiradek topo egin zuten,  
baina ez ninduen ezagutu.  
Berarentzat besteak bezalakoa nintzelako agian,  
nik bere alboan bizitako momentu guztiak oroitu arren.

Hilabeteak eman nituen hura ikusi gabe  
eta zaharkituta ikusi nuen.  
Adina izan zitekeen,  
edo zahar-etxean pasatako denbora guztiaren eragina.

Gogamen labur horren ondoren,  
neure buruari hainbat bira eman nizkion.  
Zergatik ez ote nintzen gehiago hurbildu bisitatzerara?  
Akaso bera ez zen ahaztuta zegoen bakarra.

Indarrak batu eta gerturatu nintzaion,  
baina ez nion gure arteko harremanaz hitzik ere egin.  
Bere gaztaroa erraz oroitzen zuen eta horretaz mintzatu ginen.  
Zergatik nengoen han galdetu zidan bat-batean.

Orduantxe kili-kiliak sabelean,  
ez nekien zer erantzun,  
nola esan...  
"aittona" izan zen nire erantzun bakarra.